

INFORMATZEN

www.berastegi.eus
Udalgintza informazioa 2019-2023


2021eko UDAL AURREKONTUA

Azaroaren 10ean egin genuen udalbatzaren ohiko bilkuran onartu genuen 2021ari begirako udal-aurrekontuaren hasierako proposamena. 1.109.611,27 euroan itxi dugu orain proposamena.

GASTUAK	20120 Aurrekontua			2021 Aurrekontua	Aldea (2020-2019)
	2020 Behinbehinekoa	2020 Behinbetikoa	2020/10/15 eko egoera	2021 Behinbehinekoa	Aldea (2021-2020)
I. PERTSONAL GASTUAK	445.000,00	486.200,00	346.265,98	503.000,00	58.000,00
II. ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK	351.300,00	357.500,00	227.856,84	337.950,00	-13.350,00
III. MAILEGU INTERESAK	9.000,00	9.000,00	6.130,13	7.000,00	-2.000,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	94.728,51	94.728,51	67.700,41	92.478,00	-2.250,51
V. INBERTSIO ERREALAK	150.753,84	165.253,84	72.632,03	96.183,27	-54.570,57
VI. FINANTZA AKTIBOAK. INKORPORAZIOA	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
VII. MAILEGU AMORTIZAZIOA	70.000,00	70.000,00	51.998,34	73.000,00	3.000,00
GUZTIRA	1.120.782,35	1.182.682,35	772.583,73	1.109.611,27	-11.171,08

I. Pertsonal gastuen edo udal-langileen kontratazioen atalean, %0,9ko igoera hobetsi da soldatetan. Lehengo urtearekin alderatuta, bestalde, kultur eta gazteria-dinamizatzailea jardun osoan arituko da urte guztian, eta bigarren herri-langilea ere berdin. Haez gain, gizarte-langileak iaz hasita astean bi ordu gehiago dihardu lanean gizarte-zerbitzuetan.

II. Ondasun arruntan erosketan eta zerbitzuen atalean, Udalarenak diren eraikin eta zerbitzu guztien mantenua sartzan da: administrazio orokorra, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, kultur solairua, osasun eta artxibo-solairua, gobernu-organoak, Haurreskola, J. A. Muñagorri eskola, Urepele Elkartea, Ategi, mediku-etxe zaharra edo Zubizabaleta etxea, kale-argiteria eta zaintza, bildegia eta brigada, frontoia, hilerria, jaiak eta Elduako kultur etxea.

III. Mailegu-interesen atalean, udaletxea eraberritzeko eskatutako milioi bateko maileguaren truke bankuari urtean interesetan ordaindu beharreko kopurua azaltzen da.

IV. Trasferentzi arrunten atalean, Udalak hainbat zerbitzu jasotzearen truke azpikontratatuta dituen enpresei edo hitzarmen bidez lotutako erakundeei egiten dizkien ordainketak sartzen dira: herriko ingurumen teknikariari, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateari eta Hiltegi Mankomunitateari, Tolomendiri, Tolosaldea Garatzen, EUDELi, Udalbiltzari eta UEMArri egindako ordainketak, larrialdi-laguntzak, herriko elkarteei emandako laguntzak eta euskara eta bertsolaritza ikastaroei emandakoak.

V. Inbertsio errealen atalean, 2021ean aurrera eramatea aurreikusten ditugun proiektuak sartuko lirake. 302.000 euro aurreikusi ditugu atal honetarako eta hauexek dira buruan darabiltzagun proiektuak: Ipuliño-Gorosmendiko larre komunalak, herri-bideak txukuntzea, komunikazio-plana eta herriko tokiko garapenaren prozesua, frontoiko eguzki-plakak eta Zubizabaleta etxearen eraberritzea, besteak beste.

VI. Udalak finantza aktiborik ez duenez, zeroan ageri da atal hau.

VII. Eta, gastuen atala osatzeko, mailegu-amortizazioaren azpiatala genuke; gure kasuan, udaletxea eraberritzeko eskatutako maileguari dagokion amortizazioa. Kopuru bera ordaintzen dugu urtero eta 2026ko ekainaren 22an amaituko dugu ordaintzeaz.

SARRERAK	2020 Aurrekontua			2021 Aurrekontua	Aldea (2021-2020)
KONTZEPTUA	2020 Behin-behinekoa	2020 Behin-betikoa	2020/10/15 eko egoera	2021 Behin-behinekoa	Aldea (2021-2020)
I. ZUZENKO ZERGAK	199.000,00	199.000,00	201.159,86	204.500,00	5.500,00
II. ZEHARKAKO ZERGAK	16.000,00	16.000,00	6.849,98	16.000,00	0,00
III. TASAK ETA BESTELAK SARRERAK	100.350,00	100.350,00	88.120,01	115.850,00	9.500,00
IV. TRASFERENTZI ARRUNTAK	805.432,35	805.432,35	517.086,73	773.261,27	-32.171,08
V. ONDAREZKO SARRERAK	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
VI. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
VII. KAPITAL-TRASFERENTZIAK	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
VIII. AKTIBO FINANTZAROAK	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
IX. PASIBO FINANTZAROAK	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	1.120.782,35	1.182.682,35	772.583,73	1.109.611,27	-17.171,08

I. Zuzeneko zergen atalean, landa-izaerako ondasun higiezinaren gainera, hiri-izaerako ondasun higiezinaren gainera, trakzio mekanikoko ibilgailuen gainera, hiri-izaerako lurren balioaren gehikuntzari edo plusbaliari dagokiona eta jarduera ekonomikoaren gainera leudeke. Aurreko herri-batzarrean eta *Informatzen* txostenean adierazi genizuen bezala, Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPIren) urteko batez bestekoa erreferentziazat hartu eta %1 igoko zaizkigu zuzeneko zergak 2021ean.

II. Zeharkako zergen atala eraikuntza- eta instalazio-lanei ezartzen zaien %4ko zergari dagokio. Honetan ez dugu aldaketarik egitea aurreikusi.

III. Udal-tasa eta bestelako zergen atalean, berriz, zenbait zerbitzu eskaintzeagatik Udalak kobratzen dituen zenbatekoak leudeke: zabor eta hiri-hondakinak biltzeagatik tasa, hilerriko tasa, fotokopiak egiteagatik eta faxa erabiltzeagatik, etxe etxeko zerbitzuarena, Ategiko etxebizitza babestuen erabiltzaileek ordaintzen dutena, segregazio eta etxebizitzaren lehen erabilera-baimenengatik tasak, postuak edo stand-ak jartzeagatik, lur, lurrazpi edo lurgaina erabiltzeagatik tasak (Endesa, Iberdrola, eta abarri kobratuak), udal-jabetzako lurren erabileragatik, frontoiko eta futbol-zelaiko argiteria erabiltzeagatik tasa eta telekomunikazio-operadoreei kobratzen zaizkien tasak (Euskaltel, Movistar, Orange, eta abarri ezarriak).

IV. Trasferentzi arrunten atalean, foru-fondotik edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsetatik urtero jasotzen dugun diru-kopurua da nagusi. 2021ean 700.000 euro inguru jasoko ditugula aurreikusi dugu. Gainerakoa Eusko Jaurlaritzak gizarte-zerbitzuetarako eta Osakidetzak herrian osasun-zentroa edukitzeagatik ematen dizkiguten laguntzek eta urtean zehar jasotzen ditugun diru-laguntzek osatzen dute.

V. Ondarezko sarreraren atalean, Udalak bankuan dituen deposituen truke jasotzen dituen interesak sartzen dira.

VI. Kapital-trasferentzien atalean, ez dugu ezer aurreikusi.

VII. Aktibo finantzarioen atalak, Udalak udal-funtsen gerakinetik hartu eta aurrekontuan kontenpla lezakeen kopuruari egiten dio erreferentzia. 2020ko likidazioa eginda, zenbait proiektu aurrera eramateko beharrezko ikusiz gero, erabiliko dugu gerakineko diru-funtsa, unean-unean kreditu-aldaketa eginda.

VIII. Eta, sarreraren atala amaitzeko, pasibo finantzarioen azpiatala. Bankuei eskatzen zaizkien maileguei dagokien atal honetan ere ez dugu ezer aurreikusi.

Honenbestez, eta esan bezala, 2021ari begirako aurrekontua **1.109.611,27** euroan itxi dugu.

2020ko Aurrekontuaren likidazioa

Falta ziren sarrera eta gastuak kontuan hartuta, 603.734,67ko gerakinarekin itxi dugu 2020ko Aurrekontua.

Dagoeneko 281.645,32 €ko kreditu-aldaketa egin dugu gerakinetik, honelaxe banatuko duguna: Modestoenea eta Ategi lotu dituen espaloien azken zatia ordaintzeko 34.029,32 €, Zubizabaleta eraikineko lanak aurrera eramateko 236.000 € eta artzaintzari eta gaztari buruz egiten ari garen ikerlanaren zati bat ordaintzeko 11.616 €.

HIRIGINTZA

1. Ategiko etxebizitzak: Ategi eremuko etxebizitzaren bigarren fasea martxan jartzeko prozesua hasi du Berastegiko Udalak. Bigarren fasea aurrera joaten bada, eraikiko diren etxebizitzak udal-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitza tasatuak izango dira. Horretarako, udalbatzak aurrez erabakitako oinarri arautzaileekin udal-ordenantza onartu beharko du; dagoeneko oinarri arautzaile hauek argitaratuta daude, alegazio-eparearen barruan. Epe hau igarota, osoko bilkuran emango diogu onarpena, eta orduan jarriko da martxan izen-emate epea.

Behin-behineko oinarri arautzaileetan herritarrek lehentasuna izateko baldintzak proposatu ditugu, duten erregimena kontuan hartuta, herritarra ez den beste edozein ere izan daiteke eta etxebizitza eskuratzeko hautagai.

2. LEADER-era aurkeztutako proiektuak: LEADER dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzak herrien azpiegiturarako, oinarriko zerbitzuetarako eta berritzeko inbertsioetarako eskaintzen dituen dirulaguntza-lerroak dira; gure kasuan, oso garrantzitsuak aurrera eraman nahi ditugun zenbait proiektu gauzatu ahal izateko. 2021eko deialdia argitaratu da dagoeneko, eta hauexek dira aurkeztu ditugun bi proiektuak: Eguzkialde auzoa argiztatzekoa eta udaletxeko ganbara erabilgarri jartzekoa.

Eguzkialdeko argiteriari dagokionez, 54.679,45 €-ko aurrekontua aurkeztu dugu. 10 kale-argi edo farola jartzea aurreikusi ditugu, LED sistema bidez funtzionatuko luketenak.

Udaletxeko ganbararen kasuan, berriz, 134.461,08 €-ko gastua aurreikusi dugu, obrari dagokionez; eta, proiektua idazteari eta obraren zuzendaritzari dagokiona 9.902,64 €-koa, azken gastu hau ere lagungarri izaten baita dirulaguntza-lerro hauetan.

3. Gimnasio berriko lanak: Aurreko *Informatzen*-en aurreratu genizuen bezala, urtarrilean hasi ziren Zubizabaleta etxea eraberritzeko lanekin eta bertan martxan jarriko den gimnasioa egiteko lanekin. Hasierako proiektutik zenbait aldaketa egin ditugu, lanak aurrera joan ahala, zenbait hobekuntza egiteko aukera ikusi baitugu, erabiltzaileen segurtasuna eta erosotasuna aintzat hartuta.

Herriko zenbait aditurekin lanketa egin ondoren, ezarriko ditugun makina eta aparatuen hasierako proposamenak hainbat aldaketa izango ditu. Aldaketak erabakitzeko garaian, beste gimnasio batzuetako aparatu-eskaintzak eta aparatuen erabilera-datuak hartu dira irizpidetzat.

4. Herri-bueltako hesiak: Elizaldetik Ariztun auzora doan bide-zati bat arriskutsu zegoen oinezkoentzat, koska handia baitago errepide-tik beheko belazera. Hala, oinezkoen segurtasuna bermatzeko asmoz, egurrezko hesiak jarri ditugu eremu horretan.



UDAL FUNTZIONAMENDUA

5. Erremolkeen zerga-salbuespena: Gure udal-ordenantzeta honelaxe daukagu jasota, hitzez hitz, trakzio-mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzetik salbuetsita leudekeen ibilgailuak zehazterakoan: “Traktoreak, atoiak (edo erremolkeak), erdi-atoiak eta makineria, nekazaritzako makineria inskribatzeko kartillaz hornituta daudenean”.

Beraz, udal-zerga ordaintzetik salbuesteko, aipatutako ibilgailu eta makineriaren jabe diren herritarrek nekazaritza-jarduera bati lotuta, hau da, nekazaritza-jarduerari dagokien Gizarte Segurantzako Erregimenean alta emanda daudela ziurtatu beharko dute, agrariako txartel berdea aurkeztuz.

6. Negutegien inguruko udal-ordenantza: Negutegien tamainak nolakoa izan behar duen arautzen duen udal-ordenantza aldatzera goaz; izan ere, gaur egun indarrean daukagunak ez ditu zenbait herritarren beharrak asetzen. Hargatik, neurri handiagoko negutegiak jartzeko aukera zabalduko dugu.

Hau da martxan jarriko dugun proposamena: negutegiak, gehienez, 2 metroko altuera izango du, eta alboko partzelatik utzi beharreko distantziak ematen zaion altueraren neurri berekoa izan beharko du. Gehienez, 25 metro koadroko azalera izan beharko du, hiri-lurzoruan nahiz landa-lurzoruan egon, profesionalizatu gabeko nekazaritza-erabilera arautuko luke-eta ordenantza honek.

Aipatutakoak baino neurri handiagoko negutegia eraiki nahi izanez gero, berriz, nekazaritza-ustiapen bati lotuta egon beharko du negutegiak. Eta izaera horretako negutegien neurriak eta bestelako baldintzak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak arautzen dituzte.

7. Gaztelekuko azken saioak: Gaztelekuko lokala beren gustura margotzeko aukera eta eginkizuna izan dute gazteek, besteak beste, negu honetan; baita Inigo Gorostazu herritarrek eskainitako bertso-tailerraz gozatzeko ere. Martxoaren 26an, bestalde, Tolosaldea Garatzen eta Elhuyar fundazioak elkarlanean ondutako BIZILABE proiektuaren baitan, gazteak zientziaren mundura gerturatzeko bi orduko saioa izan zuten aukeran, udaletxeko karreapean.



Eta, bukatzeko, EIHERA taldekoekin urtebeteko plangintza ere prestatu dugu, gazteek berdintasunean hezteko saioak jaso ditzaten hainbat profesionalen eskutik.



8. Goizak Lagunartean: Lehengo udako oporretan eta Gabonetan egin genuen bezala, Aste Santuko oporraldian ere martxan izan dugu Goizak Lagunartean zerbitzua, izena eman duten 49 umeentzat. Oraingoan ere Garazi Otxandorena, Amaia Azpiroz eta Maddi Rekondo aritu dira hezitzaile lanetan. Zerbitzua izaten ari den harrera eta arrakasta ikusita, pozik gaude gu ere, zerbitzua hobetzen jarraitzeko gogoz.

NEKAZARITZA, ABELTZANTZA eta BASOGINTZA

9. Bideraungo pasabide kanadiarra edo parrilla: Azken urteetan zenbait gorabehera izan dira Ariztunen Larte aldeko mendi-barrutietan larrean dabilen ganaduarekin. Abelburuak auzoraino jaitsi izan dira, nahiko maiz, itxura batean goiko ataka irekita harrapatu izan dutelako. Hargatik, Bideraunen pasabide kanadiar edo parrilla bat jartzeko eskaera jaso dugu; eta guk, barrutien azalera kontuan izanda eta ganaduzaleak ingurua txukun mantentzeko egiten ari diren ahalegina ikusita, eskaera onartzea eta arazoari irtenbidea ematea erabaki dugu.

10. Baserri-bideak konpontzeko dirulaguntzak: 2021eko otsailaren 22an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean landa-bideak txukuntzeko lanei zuzendutako dirulaguntza-deialdia. Guk aurkeztutako proposamenean, lau bide hauek konpontzeko lanak aurreikusi ditugu: Besabitako bidea (8.023,92 €), Obantzungo bidea (10.863,09 €), Aikorketako bidea (5.155,56 €) eta Elduan Moko eremuko bidea (18.447,66 €). Herritarrengandik jasotako eskaerei erantzun diegu oraingoan ere, herritarrek konpontzeko eskatutako bideak aurkeztu ditugu deialdira, guztiak ere baserri-ustiapenak dauden eremuetara iristeko bideak.

11. Ahuntz eta ardiak kalteak: Jabetza-eremuetatik kanpo dabilzan ahuntz eta ardiak sortzen dituzten kalteen berri jaso du udal-gobernuak; landaredia jatea edota eraikinetan puskaketak eragitea, esaterako. Gogorazi behar dizuegu, animalia hoi jabeen ardura dela erregistratuta egotea eta dagokien eremuetan dabilzala ziurtatzea.

KULTURA eta KIROLA

12. Gabonetako Azoka: Udazkeneroko Kultur Astea ospatu ezin, eta azkenean abenduaren 20an egin eta ospatu genuen azoka egun berezia, ezinbestean herritarrekin eta herritarren postuekin soilik, osasun-neurriak behar bezala betetzeko. Gazta Lehiaketaren 29. edizioak 9 parte-hartzaile izan zituen, eta lehiatutako gaztak postuetako erosleei eman genizkien boletoekin eginiko zozketaren bidez banatu genituen. Berrikuntza bezala, Andres Etxeberria eta Luis Erasoren egur-lanak ikusteko aukera ere izan zuten bertaratutakoek.



13. Gabonetako kultur egitaraua: Urteroko kultur hitzorduaren garaia iritsita, herrian kutsatu kopuru esanguratsua eta osasun-egoera kezagarria genuelako utzi behar izan genuen bertan behera Kultur Astea. Zenbait ekintza, ordea, lotuta genituen ordurako; hitzartuta genituen hainbat musikari eta antzezleren emanaldiak. Hala, Gabonetan eraman genituen aurrera haletako batzuk; Patata Tropikalaren haurrentzako antzerki-emanaldia eta helduentzako Erik eta Win antzerki-emanaldia, besteak beste; baita Estitxu Pinatxoren Dama Beltzak musika-emanaldia ere. Hotz handia egin arren, harrera ona izan zuten guztiek ere. Estitxu Pinatxoren emanaldirako aire beroko kainoak alokatu genituen Zelai enpresan.

14. Negutrail mendi-lasterketa bertan behera: Antolakuntzak dena prest izan arren, ezin izan zen lasterketa burutu, Eusko Jaurlaritzak osasun-larrialdia tarteko ezarritako neurriak zirela eta. Herri arteko itxiera perimetralaren pean geunden orduan. Hala, bi aukera eman zitzaizkien izena emanda zeuden eta kuota ordainduta zuten korrikalariak: 1) 2022ko edizioan parte hartzeko txartela eta lehentasuna erreserbatzea, edo 2) aurtengoan zegokien korrikalari-poltsa jaso eta 2022ko edizioan parte hartzeko lehentasuna galtzea. Aurtengoak horrela beharko du izan; datorren urteko ediziora indartsuago eta gogotsuago iritsiko gara.

TOR MAGOA



15. Inauteriak: Osasun-larrialdi egoera dela eta, Inauteriak ospatzerik ere ez dugu izan, baina ez ditugu ahaztuta pasa. Ostiralez, otsailak 5, lehengo urtean garaile izan zen “Virginia Santos” taldeak txupinazo birtuala eskaini zigun herritarroji; eta, arratsaldez, Tor magoaren ikuskizuna izan genuen frontoian. Mozorro-lehiaketa birtuala ere izan genuen, eta aurtengoan garaile Baserria saioko Klaudio aurkezlea eta bere kuadrilla izan genituen. Haiek izango dira ondo bidean 2022ko Inauterietan txupinazoa botako dutenak.

16. Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna: Martxoaren 8ari begira antolatutako ekintzak ere pandemia-egoerara egokitu behar izan dira ezinbestean. Martxoaren 5ean, ostiralez, Amak musika-taldearen kontzertua izan genuen; eta, martxoaren 7an, igandez, oinez edo korrika,

Lilatoia egiteko elkartu ginen herriko 50 emakume inguru. Inguruko herrietan ere egiteko asmoa zutela jakinda eta herritarrengan nolako interesa piztu zuen ikusita erabaki genuen Berastegin ere lasterketa morea antolatzea. Egunean bertan, martxoaren 8an, elkarretaratzea egin zen plazan, urteroko ohiturari jarraituz, eta ondoren adierazpen bat irakurri zen. Beste behin ere herritarren parte hartzea handia izan zen aldarrikapen egun honen harira antolatutako ekintzetan.



MOTZEAN

17. 2020ko irisgarritasun-dirulaguntzak: Atera berri da ebazpena. Guk aurkeztutako proiektuetatik Modesto eneko espaloia egiteko lanen eskaerak jaso du aldeko ebazpena. 8.917,48 € jasoko ditugu 3 epetan: 2020an 424,64 € jaso genituen, 2021ean 4.094,59 € izango dira jasoko ditugunak eta 2022an 4.398,25 €.

18. BERDINBIDEAN programarako dirulaguntza-eskaera: Gipuzkoako Foru Aldundiak, 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren gaia lantzeko, dirulaguntza-lerroa argitaratzen du urtero. Azken urteetan bezala, aurrera eramatea aurreikusi dugun programa aurkeztu dugu aurten ere: 1) Gaztelekuko gazteentzat feminismoa lantzeko programa, EIHERA kooperatibakoek ikasturte osoan zehar Gaztelekuan bertan eta hilean behin eskainiko dituzten saioen bidez; 2) Gurasoentzat (2-12 urte arteko gurasoentzat, batez ere) Guraso Eskola, irailtik aurrera ikasturtean zehar hilean behin egingo diren ordu eta erdiko 9 saioen bidez; eta, bukatzeko, 3) azken ikasturteetan egindakoari jarraipena emanez, eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleekin sexualitatearen inguruko Bizikidetzatza saioak (12 ordu guztira). 3.605 €ko aurrekontua aurkeztu dugu.

19. Euskara sustatzeko dirulaguntzak: Urtero egin ohi dugun moduan, Aldundiak iragarritzen dituen euskara sustatzeko dirulaguntzetara ere aurkeztu dugu gure plangintza. Bertan UEMAKO kuota, ahozkotasuna lantzeko bertsolaritza-ikastaroak, euskara ikasteko dirulaguntzak eta euskarazko komunikabideak finantzatzeko erabili ohi dugun diru-partida aurkeztu ditugu; 16.900 € guztira. Jakin, hala ere, gehienez 2.000 € jaso genitzakeela bueltan.

20. Aberri Eguna: Pandemia garai honetan, deialdi jendetsurik egin ezin denez, aurten Aberri Eguna ospatzeko, etxeetako balkoietan ikurrina jartzera animatu genituen Berastegiko herritarrak.

21. Erabilera anitzeko gelarako ispilua: Udaletxeko kultur solairuan dagoen erabilera anitzeko gelan (gela gorrian), dantzako ikasle zein irakasleek egindako eskaerari erantzunez, 6 m x 1,80 m-ko ispilu bat jarri dugu pareta batean.

22. Errealeko bandera udaletxeko balkoian: laz jokatu ezin izan zen Errege Kopako finala jokatu zuten apirilaren 3an Errealak eta Athleticek Sevillan. Partidua publikorik gabe izatekoa zenez eta errealezaleek bertara joan ezin zuten, Gipuzkoako udal guztiekin harremanetan jarri zen Errealak, eta udalerrri guztietako banderak eraman zituen taldeak Sevillara. Martxoaren 24an pasa zen Berastegitik Errealeko autobusa, eta gure udal-ordezkarri baten eskutik jaso zuten Errealekoek herriko bandera, Sevilla aldera eraman zezaten. Trukean, beraiek Errealeko bandera eman ziguten, finaleko partidara arte udaletxeko balkoian eskegita izan genezan.

23. Herriko elkarteentzako diru-laguntzak: Urtero bezala, herriko elkarteekin harremanetan jarri gara, beren ekintzak aurrera eramateko udal-aurrekontuan urtero eskaintzen zaien diru-partidaren berri emateko. Aurten ez da aldaketarik izan elkarteen zuzendaritza-taldeetan, eta elkarteentzako ordezkariak iaztik dirulaguntza-deialdiaren dinamikaren berri bazutenez, ez gara aurrez aurre elkartu, whatsapp bidez izan dugu harremana. Elkarte bakoitzari eskaera ohiko moduan egiteko aukera eman diogu; hala ere, bizi dugun egoeraren ziurgabetasuna dela-eta, eskaera aurrerago egin nahi badute, zabalik izango dute hartarako aukera.

24. Desfibriladorea: Udaletxeko karreapean zegoen desfibriladorearen epe-muga iraungita zegoenez, beste bat erostea erabaki dugu, behar izanez gero erabiltzeko. Beste enpresa bati erosi diogu oraingoa, aurreko enpresa ez baitago dagoeneko martxan. 1.121,67 € ordainduta,

desfibriladorea bera eta hari egin beharreko errebisioak ere kontratatu ditugu. Lehen zegoen lekuan eta moduan egongo da oraingoa ere, larrialdiren bat gertatuz gero, erabiltzeko prest. Aparatu honek erabiltzen ari garen momentuan bertan ematen du gailua zuzen erabiltzeko pausoen berri. Desfibriladorea erabiltzen ikasteko formakuntza-saio bat eskaintzea ere beharrezko ikusi dugu, aspaldi da eta azkena eskaini genuela.

2020ko errenta aitortzeko kanpaina
Internet bidez, telefonoz, ogasunaren egoitzan, banketxean edo aholkularitzan. Aurten ere egin **errenta aitortpena euskaraz!**

ERRENTA AITORTPENA EUSKARAZ

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA
Jasotako proposamena onartzerakoan, **TELEFONOZ ZEIN INTERNET BIDEZ**, euskaraz egin nahi duzula esan, eta aurrerantzean ogasunak agiriak euskaraz bidaliko dizkizu.

MEKANIZATUA

- Hitzordua hartzerakoan, adieraz ezazu ogasunarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Horrela eskatuz gero, ogasunarekin harremana euskaraz izan dezakezu, bai aurrez aurre, eta bai telefonoz zein Internet bidez ere.
- Ogasunak sinatzeko ematen dizun orria ere euskaraz jaso dezakezu.

INTERNET BIDEZKOA

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi Internetetik eta **HOBETSITAKO HIZKUNTZA** atalean euskara hautatu.
- Aholkularitzaren bat aukeratzen baduzu, berariaz adierazi beharko duzu aitortpena euskaraz egin nahi duzula.
- Beste modu batean egiten baduzu (finantza erakunde batean, esaterako), euskaraz egiteko eska dezakezu).

Berastegi
HERRI KULTURAK

UCMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA